



ERRETERIA
UDALA
Hirigintza / Urbanismo

Espediente zk./Nº expediente: 2023SZUZ0042 (2022ZDIR0040 erlazionatuta)

Erregistroa/Registro: Ofizioz/ De oficio

Gaia/Asunto: **Ebazpena**, Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Planaren (PIIE 22-24) esparruan Beraun auzoan dauden bizitegi-eraikinak birgaitzeko Jabeen Erkidegoei eta, gehigarriak, partikular kalteberei dirulaguntzak emateko **oinarriak eta deialdia onartzekoa**.//**Resolución de aprobación de las Bases y de la Convocatoria** para la concesión de subvenciones a Comunidades de Propietarios y Propietarias y, adicionales, a particulares vulnerables para la rehabilitación de edificios residenciales incluidos en el barrio de Beraun en el marco del Plan Interinstitucional de Inversiones Estratégicas (PIIE 22-24).

Eskatzailea/ Solicitante: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila eta Errenteriako Udala. //Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transporte del Gobierno Vasco y Ayuntamiento de Errenteria.

CIF: S483001C eta , P2007200E

Kokapena/Emplazamiento: Berauneko haintak eraikin/Algunos edificios de Beraun

DEKRETUA

DECRETO

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

I 2022ko martxoaren 29an, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Plana (PIIE 22-24) abian jartzea onartu zuen. Plan hori Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek garatuko dute. Bertan, 2022., 2023., 2024. eta 2025. ekitaldietan egin beharreko jarduerak jasotzen dira. Erakundeen arteko lankidetzaren bidez, inbertsioaren aldeko apustua egin nahi da, berreskurapenerako, eraldaketarako eta erresilientziarako palanka gisa.

Euskadi Next 2021-2026 berreskuratzeko eta erresilientziarako euskal programan, Eskualdeko Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko 7. Proiektu Estrategikoa (PERTE) garatu da, Hiri Jasangarriak, EAeko eremu kalteberen hiri-berroneratze integrolean arduatua.

2022 – 2024 Inbertsio Estrategikoen Planean (Euskadi Next 21-26 Programa), 6. osagaiari (Hiri Habitata) lotutako aparteko inbertsio-lerro bat aurreikusi zen, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak kudeatzen duena 2022, 2023, 2024 eta 2025. urteetan.

I El 29 de marzo de 2022, el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobó la puesta en marcha de un Plan Interinstitucional de Inversiones Estratégicas (PIIE 22-24) a desarrollar entre el Gobierno Vasco junto a las Diputaciones Forales. En él se incluyen actuaciones a realizar en los ejercicios 2022, 2023, 2024 y 2025 que mediante la colaboración interinstitucional pretende ser una apuesta por la inversión como palanca para la recuperación, la transformación y la resiliencia.

En el programa vasco de recuperación y resiliencia Euskadi Next 2021-2026, se ha desarrollado el 7º Proyecto Estratégico de Recuperación y Transformación Económica Regional (PERTE), Ciudades Sostenibles, focalizado en la Regeneración Urbana integral de ámbitos vulnerables de la CAPV.

Con el objetivo de poner en ejecución este PERTE, en el Plan de Inversiones Estratégicas 2022 – 2024 (Programa Euskadi Next 21-26), fue prevista una línea de inversión extraordinaria vinculada a la componente 6, Hábitat Urbano, que se gestiona desde el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, durante las anualidades



ERRETERIA
UDALA
Hirigintza / Urbanismo

Inbertsio-ildo hori bi kontzeptu osagarritara bideratzen da, eta horietako bat jarduera jakin batzuei eman beharreko zuzeneko dirulaguntzen bidez gauzatzen da.

II Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzak, aipatutako 11/2021 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako eskumenak erabiliz, beharrezkotzat jo du hiri-berroneratzearen arloan Errenteriako Udalarekin lankidetzan aritzea, gaur egun Beraun auzoan egiten ari den hiri-berroneratze integraleko prozesuan.

Horrela, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2022ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Errenteriako Udalarari 3.200.282,01 €-ko zuzeneko dirulaguntza ematea erabaki zuen, Errenteriako Udalak Beraun auzoko hiri-berroneratze integralerako hainbat jarduketak gauza ditzan (Esp.: 2022/01462) (A/20220597).

III. Errenteriako udalerriko Beraun auzoko hiri-berroneratzearen proiektuak hainbat jarduketak biltzen ditu: eraikinetan ekorehabilitazioko esku-hartzeak, hurbileko bulego bat ezartzea, eraiki gabeko espazioetan berrurbanizatzea eta esku-hartzeak egitea, ekipamenduetan esku hartzea, etab.

Oinarri eta deialdi hauen bidez, eraikin pribatuetan egingo diren esku-hartzeak diruz laguntzeko Udalak eman behar dituen laguntzen esparrua ezarri nahi da.

Helburua auzoko atari bat edo batzuk, 70 etxebizitza inguru, ekorehabilitatzea da.

Eraikin horietan egin beharko diren jarduketak

2022, 2023, 2024 y 2025.

Esta línea de inversiones se destina a dos conceptos complementarios, uno de los cuales se materializa mediante subvenciones directas a otorgar a determinadas actuaciones.

II La Viceconsejería de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco en ejercicio de sus competencias previstas en el artículo 9 del citado Decreto 11/2021, en materia de regeneración urbana ha considerado necesario colaborar con el Ayuntamiento de Errenteria en el proceso de regeneración urbana integral que éste viene llevando a cabo en la actualidad en el barrio de Beraun.

De esta forma, el Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 27 de diciembre de 2022 acordó otorgar una subvención directa al Ayuntamiento de Errenteria por un total de 3.200.282,01 € para que éste materialice diversas actuaciones dirigidas a la regeneración urbana integral en el Barrio de Beraun (Exp. 2022/01462) (A/20220597).

III El proyecto de regeneración urbana en el barrio de Beraun del término municipal de Errenteria, comprende diversas actuaciones: intervenciones de ecorehabilitación en edificios, implantación de una oficina de proximidad, reurbanización e intervenciones en espacios no edificados, intervención en equipamientos, etc...

Las presentes bases y convocatoria pretenden establecer el marco de las ayudas que el Ayuntamiento debe conceder para subvencionar las intervenciones que van a llevarse a cabo en edificios privados.

El objetivo es la ecorehabilitación de uno o varios portales del barrio, de unas 70 viviendas aproximadamente.

Las actuaciones que deberán realizarse en estos



ERRETERIA UDALA

Hirigintza / Urbanismo

jarduketa integralaren ikuspegitik gauzatuko dira, irisgarritasuna, eraginkortasun energetikoa, bizigarritasuna eta suteen aurkako babesa hobetuz.

Eraikinen jabekideek sustatu eta egingo dituzten eraikinen birgaitze sakoneko jarduketa horietarako, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako dirulaguntzatik 1.160.382,01 € bideratuko dira, eta Errenteriako Udalaren bidez emango zaizkie interesa duten erkidegoei, landutako oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

Oinarriek, laguntza nagusiez gain, laguntza gehigarriak aurreikusten eta arautzen dituzte pertsona fisikoentzat edo kalteberatasun-egoeran dauden bizikidetz-unitateentzat, birgaitzeko eraikinetan baldin badaude.

IV EAEko Gobernu Kontseiluak Errenteriako Udalari emandako dirulaguntza zuzeneko dirulaguntza gisa mugatu da. Era berean, emakida hori ematean, Udalak Jabeen Erkidegoei emango dizkien laguntzak eta pertsona kalteberei emango dizkien laguntza gehigarriak ere zuzenean emango dira, eraikinen birgaitze integrala egin dezaten.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikularekin bat etorritz, zuzenean eman daitezke Estatuaren, autonomia-erkidegoen edo toki-erakundeen aurrekontu orokorretan modu izendunean aurreikusitako dirulaguntzak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jasotako baldintzetan.

edificios se materializarán desde una perspectiva de actuación integral, mejorando la accesibilidad, la eficiencia energética, la habitabilidad y la protección contra incendios.

Para estas actuaciones de rehabilitación profunda de los edificios, que se promoverán y realizarán por los y las copropietarias de las edificaciones, se destinan 1.160.382,01 € de la subvención que el Consejo de Gobierno ha aprobado, y su concesión a las Comunidades interesadas se realizará a través del Ayuntamiento de Errenteria, siguiendo lo establecido en las bases elaboradas. El porcentaje de financiación por parte del Gobierno Vasco es del 100%..

Las bases, además de las ayudas principales, prevé y regula ayudas adicionales a las personas físicas o unidades convivenciales en situación de vulnerabilidad que existan en las edificios objeto de rehabilitación.

IV La subvención otorgada por el Consejo de Gobierno de la CAPV al Ayuntamiento de Errenteria se ha delimitado como una subvención directa. De la misma forma, el otorgamiento de esta concesión determina que la concesión de las ayudas que el Ayuntamiento va a otorgar a las Comunidades de Propietarios y Propietarias y las adicionales a personas vulnerables para que procedan a la rehabilitación integral en profundidad de sus edificios se realice también de forma directa.

De conformidad con el artículo 22 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones pueden concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Estado, de las Comunidades Autónomas o de las Entidades Locales, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones.



ERRETERIA
UDALA
Hirigintza / Urbanismo

Estrategikoaren arabera, Beraun auzoko bizitegi-erakinak birgaitzeko Jabeen Erkidegoei eta partikular kalteberei dirulaguntzak emateko, zuzeneko emakida eta urte anitzeko konfigurazioa erabiliko dira, 1 0420 780 01 433 00 partidaren kontura.

V Deialdiak erkidegoak hautatzeko lehen fase bat du, 2023an egitekoa, eta proiektuak diruz laguntzeko bigarren fase bat, 2024ko eta 2025eko ekitaldietan eman eta gauzatuko baitira laguntzak, erkidegoek aurkeztutako proiektuak gauzatu ahala.

Beraz, lehenengo fasea gauzatzeak ez dakar gastu-konpromisorik, ez eta Errenteriako Udalaren betebeharrak ekonomikoaren aitorpenik ere.

Errenteriako Udalaren aurrekontua gauzatzeko oinarriek dirulaguntzak aurretiaz izapidetzea ahalbidetzen dute.

Horrela, dagokion dirulaguntzen deialdia ebazpena emango den aurrekontu-ekitaldia baino lehenagoko ekitaldi batean onar daiteke, betiere gastua dirulaguntza ematen den urte berean gauzatzen bada.

Gainera, bermatuta dago kreditu egokia eta nahikoa egongo dela 2024ko eta 2025eko ekitaldietako aurrekontuetan; izan ere, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzaren bidez % 100ean finantzatutako urte anitzeko dirulaguntza da, eta orain arte 682.491,56 €-ko ordainketak egin dira.

Udalak eman beharreko laguntzen oinarri eta deialdiei buruzko txostena egin du udal arkitektoak.

Ayuntamiento señala que la concesión de subvenciones a Comunidades de Propietarios y Propietarias y adicionales a particulares vulnerables para la rehabilitación de edificios residenciales del barrio de Beraun se realizaría bajo la modalidad de concesión directa y configuración plurianual, con cargo a la partida 1 0420 780 01 433 00.

V La convocatoria consta de una primera fase de selección de Comunidades, a realizar en 2023, y una segunda fase de subvención de proyectos propiamente dicha, ya que las ayudas se concederán y materializarán durante los ejercicios 2024 y 2025, a medida que las Comunidades ejecuten los proyectos presentados.

Por tanto, la ejecución de la primera fase no supone ni compromiso de gasto, ni reconocimiento de obligaciones de carácter económico para el Ayuntamiento de Errenteria.

Las bases de ejecución presupuestaria del Ayuntamiento de Errenteria permiten la tramitación anticipada de subvenciones.

Así, la convocatoria de subvenciones correspondiente puede aprobarse en un ejercicio presupuestario anterior a aquél en el que vaya a tener lugar la resolución de la misma, siempre que la ejecución del gasto se realice en la misma anualidad en que se produce la concesión.

Además, está garantizado que vaya a existir crédito adecuado y suficiente en los presupuestos de los ejercicios 2024 y 2025 dado que se trata de una subvención plurianual financiada al 100% por la ayuda otorgada por el Gobierno Vasco, de la cual ya se han hecho efectivos hasta la fecha abonos por un importe de 682.491,56 €.

La arquitecta municipal ha realizado el informe correspondiente a las bases y convocatorias de estas ayudas a otorgar por el Ayuntamiento.



**ERRETERIA
UDALA**
Hirigintza / Urbanismo

Kontuhartzaileak, 2023ko irailaren 19an espedientea fiskalizatu du.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatezatzak 2023ko ekainaren 17ko 1598 Dekretuaren bidez emandako eskuordetzearen ondorioz eman zaizkidan eskumenak erabiliz, eta udal aholkulari juridikoak emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

1.- 1.- Jabekideen erkidegoei eta higiezinen titularrei **dirulaguntzak emateko oinarri espezifikokoak eta deialdia onartzea**, bai eta Beraun auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko pertsona kalteberentzako laguntza gehigarriak emateko deialdia ere, Inbertsio Estrategikoen Erakundearteko Planaren esparruan (PIIE 22-24).

2.- 2.- Konpromisoa hartzea kreditu egokia eta nahikoa esleitzeko 1 0420 780 01 433 00 aurrekontu-aplikazioan 2024 eta 2025 ekitaldietarako, Eusko Jaurlaritzak emandako zuzeneko dirulaguntzaren % 100 finantzatuta.

Erreterian, sinaduran agertzen den datan

Stua. Eneko del Amo Jimenez

Hirigintzako Zinegotzi Delegatua

La interventora con fecha 19 de septiembre de 2023 ha fiscalizado el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento en Decreto 1598 de 17 de junio de 2023, y con la conformidad dada por la asesora jurídica municipal.

Por la presente,

RESUELVO

1.- Aprobar las bases específicas y convocatoria para la concesión de subvenciones a Comunidades de Propietarios y propietarias y titulares de inmuebles, así como ayudas adicionales a particulares vulnerables para la rehabilitación de edificios residenciales del barrio de Beraun en el marco del Plan Interinstitucional de Inversiones Estratégicas (PIIE 22-24).

2.- Adquirir el compromiso de consignar crédito adecuado y suficiente en la aplicación presupuestaria 1 0420 780 01 433 00 para los ejercicios 2024 y 2025, financiado al 100% por la subvención directa otorgada por el Gobierno Vasco.

Erreteria, en la fecha de la firma



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU39cf5ed5-78ea-4c2b-a599-09a323c034e5**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023SZUZ0042-DEKRETUA/DECRETO (ERRENTERIAKO UDALA)